

**Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIAZTATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko urriaren 13an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Asmae El Mghariren eskaera, enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza, onartzea.**

Alkate-udalburuaren 2022ko urriaren 10eko proposamenak dio:

Gaia: Asmae El Mghari: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza eskaera.

Unai Kortabarria Errastik, Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Saileko teknikariak, 2022ko irailaren 14an egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen sinatutako aktak honela dio:

*Expediente zk. 2022ZDKO0002*

*Expedientearen helbidea: FORUEN ENPARANTZA 1*

*Udalerria: OÑATI*

*Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza eskaera*

*Interesduna: EL MGHARI ASMAE*

*Prozedura: ZDKOUdalak emandako diru-laguntzak (konpetentziaz)*

*Hasiera-data: 2022/07/19*

*Sarrera erregistroa: 2022 / 2673*

*Sozioekonomia eta Turismo batzordean EL MGHARI ASMAEk hasitako prozedura aztertu da.*

*Aipatutako gaiari dagokionez, jarraian agertzen diren gertakariak:*

*Lehenengoa.- Asmae El Mgharik “Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza” eskaera egin du 2022ko uztailaren 19an.*

*Bigarrena.- Dirulaguntza eskaera hori lotuta, 2022ko uztailaren 22an 2732 erregistro zenbakia duen eskaera aurkeztu du Asmae El Mgharik, kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria aurkeztuz eta horrela dirulaguntza eskaeraren dokumentazioa osatuz.*

*Hona hemen azaldutako gertakarien balorazioa:*

*Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta Oñatiko Udalaren Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak kontuan izanda,*

*Lehenengoa.- Asmae El Mgharik betetzen dituela dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko oinarrien 3. artikuluan - “Pertsona edo erakunde onuradunak” - zehaztutako baldintzak.*

*Bigarrena.- Asmae El Mgharik betetzen dituela dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko oinarrien 4. artikuluan - “Laguntza motak, zenbatekoak eta horiek jasotze ko baldintzak” - zehaztutako baldintzak.*

*Hirugarrena.- 4. Artikuluan zehaztutako laguntzen zenbatekoak kontuan hartuta, 1.950 euroko dirulaguntza onartzea proposatzen da, honela kalkulatuta:*

- *Sustatzaileak sorturiko lanpostuagatik: 1.500 euro.*

- *Sustatzailean emakumezkoa izategatik. 450 euro (%30eko gehikuntza).*

*Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia eta Turismo batzordean eman ostean, honakoa proposatzen da:*

*Lehenengoa.- Asmae El Mgharik aurkeztutako dirulaguntza eskaera onartzea.*

*Bigarrena.- Dirulaguntza ordainketa agintzea eta 1.950€-ko gastua onartzea, 1 1000.480.241.01.01 (389) eta 1000.480.241.02.01 (563) aurrekontu partida eta bere lotespen mailaren kontura.*

*Hirugarrena. - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.*

*Laugarrena. - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.*

*Bosgarrena. - Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”*

*Azaldutakoagatik, sozioekonomia eta turismo batzordearen oniritziarekin, tokiko gobernu batzordeari honako hau proposatzen diot:*

*Lehenengoa.- Asmae El Mgharik aurkeztutako dirulaguntza eskaera onartzea.*

*Bigarrena.- Dirulaguntza ordainketa agintzea eta 1.950€-ko gastua onartzea, 1 1000.480.241.01.01 (389) eta 1000.480.241.02.01 (563) aurrekontu partida eta bere lotespen mailaren kontura.*

*Hirugarrena. - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.*

*Laugarrena. - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.*

*Bosgarrena. - Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.*

---

*Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez Kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.*

*Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.*

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**

**Alkatearen O.I.**

**IDAZKARIA**

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022ZIES0006-ZIURTAGIRIA/CERTIFICADO (OÑATIKO UDALA)